

# Z A R G A

## URRIA 2023 10 zk.


ZERGA ARAUDIAREN GAURKOTASUNA

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA  
ZERGA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARITZA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



# ALHAO

ARABAKO LURRALDE  
HISTORIKOAREN  
ALDIZKARI OFIZIALA

ALHAO — 120 zk. — 2023/10/11 — (FEZ) — 

OGASUN FINANTZA ETA AURREKONTU, SAILEKO FORU DIPUTATUA, 433/2023 FORU AGINDUA, EKAINAREN 22KOA, ONESTEA FINANTZA TRANSAKZIOEN GAINEKO ZERGAREN AUTOLIKIDAZIOA EGITEKO 604 EREDUA.

2022ko martxoaren 23an, ALHAOn argitaratu zen Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 15eko 4/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, finantza transakzioen gaineko zerga Arabako Lurralde Historikoaren zerga ordenamenduan txertatzen duena. Eragiketan parte hartzen duten pertsonen edo erakundeen egoitza edozein dela ere eskuratzen diren akzioak zergapetzen ditu zerga honek.

Otsailaren 8an BOEn argitaratu zen otsailaren 8ko 1/2022 Legea, zeinaren bidez aldatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onesten duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legea. Aldaketa horren ondorioz, bi zerga berri hitzartu dira, eta horietako bat Finantza Transakzioen gaineko Zerga izan da.

Indarreko Ekonomia Itunaren 34 bis artikulua jasotakoarekin bat etorritik, Finantza Transakzioen gaineko Zerga arautuko da estatuak une bakoitzean ezarrita dituen arau substantibo eta formal bereberekin. Hala ere, aitorten- eta sarrera-ereduak onesteko eta likidazioaldi bakoitzeko sarrera epeak zehazteko ahalmena izango dute. Baina eredu horietako datuak, gutxienez, lurralde erkidean erabiltzen diren berberak izan behar dira; eta epe horiek, berriz, ez dira Estaduko Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izango.

Zerga zorraren aitortpena eta ordainketa egiteko obligazioari dagokionez, subjektu pasiboak dagozkion autolikidazioak aurkezteko betebeharra xedatzeaz gainera, ezartzen da, erregelamenduz xedatutako baldintzetan, subjektu pasiboek autolikidazioak aurkeztu eta ondoriozko zerga zorra ordainduko dutela Espainiako lurraldean ezarrita dagoen balore gordailuzain zentral baten bitartez.

Zergaren likidazioaldia hilabete naturalarekin bat dator. Subjektu pasiboek autolikidazioa aurkeztu eta ateratzen den zerga zorraren zenbatekoa sartu behar dute, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren foru agindu bidez ezartzen den leku, modu eta epeetan eta foru aginduan bertan zehaztutako edukiarekin.

Foru agindu honetan, Finantza Transakzioen gaineko Zergaren Autolikidaziorako 604 eredu berria onesten da, eta autolikidazio horiek aurkezteko epea eta modua ezartzen dira.

## ALHAO — 120 zk. — 2023/10/11 — (FEZ) —

### 595/2023 FORU AGINDUA, IRAILAREN 19KOA FINANTZA TRANSAKZIOEN GAINEKO ZERGAREN AUTOLIKIDAZIOA EGITEKO 604 EREDUA ONESTEN DUEN EKAINAREN 22KO 433/2023 FORU AGINDUAREN AZKEN XEDAPENA ALDATZEA.

Finantza Transakzioen gaineko Zergaren urriaren 15eko 5/2020 Legea 2021eko urtarrilaren 16an sartu zen indarrean.

Finantza Transakzioen gaineko Zerga onetsi ondoren, otsailaren 8ko 1/2022 Legeak, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onesten duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legea aldatzen baita, Finantza Transakzioen gaineko Zergaren ituna sartu zuen Itunaren 34 bis artikulua berriaren bidez. Artikulu horrek aplikatu beharreko araudia eta zergaren ordainarazpena eta ikuskapena ezartzen ditu, eta lehenengo apartatua xedatzen du tributu itundu bat dela, Estatuak unean une ezarritako arau substantibo eta formal berberen arabera arautzen dena.

2022ko martxoaren 23an, ALHAOn argitaratu zen Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 15eko 4/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, Finantza Transakzioen gaineko Zerga Arabako zerga sisteman txertatzen duena.

Ekainaren 22ko 433/2023 Foru Aginduaren bidez, zerga horren autolikidazioa egiteko 604 eredu onetsi zen. Eredu horretan xedatzen denez, 2023ko irailaren 1etik aurrera hasten diren likidazio aldiei dagozkien autolikidazioei aplikatuko zaie.

Gerora sortutako inguruabar teknikoak direla eta, Finantza Transakzioen gaineko Zergaren autolikidazio eredu berria 2024ko urtarrilaren 1era arte atzeratzea komeni da, inplikaturako administrazio guztiek zerga behar bezala ordainaraziko dutela bermatzeko.



# BAO

## BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA

BAO — 195 zk. — 2023/10/10 — (H) — 

OGASUN ETA FINANTZEN FORU DIPUTATUAREN 387/2023 FORU AGINDUA, IRAILAREN 29KOA, ZEINAREN BIDEZ ALDATZEN BAITA OGASUN ETA FINANTZEN FORU-DIPUTATUAREN 1047/2018 FORU AGINDUA, EKAINAREN 12KOA, ERAGIKETA LOTUEN ETA PARADISU FISKALTZAT JOTAKO HERRIALDEEKIN EDO LURRALDEEKIN LOTUTAKO ERAGIKETEN ETA EGOEREN AITORPEN INFORMATIBORAKO 232 EREDUA ONESTEKOA.

2018ko ekainaren 12ko 1047/2018 Foru Aginduaren bidez, eragiketa lotuen eta paradisu fiskaltzat jotako herrialdeekin edo lurraldeekin lotutako eragiketen eta egoeren aitortpen informatiborako 232 ereduaren onetsi zen.

Eredu horri dagokionez, Zerga arloko zenbait aldaketa sartzen dituen 2022ko uztailaren 20ko 8/2022 Foru Arauaren bidez, aldatu egin zen Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorren hogeita laugarren xedapen gehigarria, jurisdikzio ez-kooperatiboaren definizioari buruzkoa, besteak beste paradisu fiskalen terminoa jurisdikzio ez-kooperatiboetara egokitzeko nazioarteko parametro berrien arabera.

Hala, bada, iruzur fiskalari modu eraginkorragoan aurre egin ahal izateko, zabaldu egiten da paradisu fiskalaren kontzeptua eta, horretarako, zehaztu egiten da zer den jurisdikzio ez-kooperatiboa izatea, ekitate fiskalaren eta gardentasunaren irizpideak kontuan hartuta. Beraz, halakotzat jotzen dira benetako jarduera ekonomikorik islatzen ez duten onurak erakartzera bideratutako lurraldez kanpoko sozietateak egoteko aukera ematen duten herrialdeak eta lurraldeak, haietan tributazioa baxua delako edo ez dagoelako tributaziorik, bai eta opakuak direlako nahiz gardentasunik ez dutelako, halako herrialdeekin ez dagoelako ezarriarik aplikatu beharreko tributu-informazioaren trukearen arloko elkarrekiko laguntzari buruzko araudirik, ez dagoelako tributu-informazioaren truke eraginkorrik, edo herrialde eta lurraldeokiko informazio-trukeen eraginkortasunaren ebaluazioen emaitzengatik.

Hori dela eta, orobat egokitzen da 232 ereduaren paradisu fiskalei buruzko terminologia, eta, horrez gainera, aldaketa tekniko batzuk egiten dira, haren kudeaketa hobetzeko.

BAO — 195 zk. — 2023/10/10 — (SZ) — 

OGASUN ETA FINANTZEN FORU DIPUTATUAREN 388/2023 FORU AGINDUA, IRAILAREN 29KOA. HONEN BIDEZ, ALDATU EGITEN DA 60/2015 FORU AGINDUA, URTARRILAREN 9KOA, 20R EREDUA ONESTEN DUENA. 20R EREDUA: BAT-EGITEEN, ZATIKETEN, AKTIBO-EKARPENEN, BALORE-TRUKEEN, AKTIBOAREN ETA PASIBOAREN LAGAPEN OSOAREN, ETA EUROPAKO SOZIJETATE EDO KOOPERATIBA-SOZIJETATE BATEN EGOITZA EUROPAR BATASUNENKO ESTATU KIDE BATETIK BESTE BATERA ALDATZEAREN ZERGA-ARAUBIDE BEREZIA APLIKATZEKO JAKINARAZPENA.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauko 114.3. artikulua ezartzen du bat-egiteen, zatiketen, aktibo-ekarpenen, balore-trukeen, aktiboaren eta pasiboaren lagapen osoaren, eta Europako sozietate edo kooperatiba-sozietate baten egoitza Europar Batasuneko estatu kide batetik beste batera aldatzearen zerga-araubide berezia aplikatzeko aukera eskritura publikoan edo agiri publiko baliokidean jaso behar dela eta eskritura edo aukera hori Zerga Administrazioari jakinarazi behar zaiola, erregelamendu bidez ezarritako moduan eta epean.

Zehazki, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko abenduaren 23ko 203/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduko 43. artikulua ezartzen du zergapekoek zer leku eta epetan egin behar duten araubide berezia aplikatzeko aukeraren jakinarazpena eta zer eduki izan behar duen jakinarazpen horrek.

Aurreko xedapenak garatuz, Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren 2015eko urtarrilaren 9ko 60/2015 Foru Agindua onetsi zen. Haren bidez, 20R ereduaren onetsi da.

20R ereduaren bidez, bat-egiteen, zatiketen, aktibo-ekarpenen, balore-trukeen, aktiboaren eta pasiboaren lagapen osoaren, eta Europako sozietate edo kooperatiba-sozietate baten egoitza Europar Batasuneko estatu kide batetik beste batera aldatzearen zerga-araubide berezia aplikatzeko jakinarazpena.

Orain, zerga-informazio ahalik eta zehatzena lortzeko eta unean uneko errealitateari doituago egon dadin, eguneratu egin behar da 20R ereduaren bidez. Zehazki, kuota likidoan gehienez ere % 50eko muga duen kenkariaren taldea sartu behar da.

Azaldutakoaren ondorioz, foru-agindu honen xedea da 20R eredu berri bat onestea, zeina orain arte bezala telematikoki baino ezin izango baita aurkeztu.

4/2023 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, URRIAREN 5EKOA, ZEINAREN BIDEZ ALDATZEN BAITA 1/2023 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, OTSAILAREN 28KOA, BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAN, ENERGIA ELEKTRIKOAREN EKOIZPENAREN BALIOAREN GAINEKO ZERGAN, EZ-EGOILIARREN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAN ETA EKONOMIA-JARDUEREN GAINEKO ZERGAKO TARIFETAN TRIBUTU-NEURRIAK APLIKATZEARI BURUZKOA.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen 26. artikuluan ezarritakoaren arabera balio erantsiaren gaineko zerga tributu itundu bat da eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen arau substantibo eta formal berak erabiliko dira hura arautzeko.

Abenduaren 27ko 20/2022 Errege Lege Dekretuak (Ukrainako Gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko eta La Palma uhartea berreraikitzen laguntzeko eta beste kalteberatasun-egoera batzuei laguntzeko neurri buruzkoa), zenbait neurri fiskal sartu ditu, besteak beste.

Elikagaien eremuan, ehuneko 4tik ehuneko 0ra jaitsi da oinarrizko elikagaiei dagokien balio erantsiaren gaineko zergaren zerga-tasa —orain arte tasa murriztuaren pean egon dira—, eta ehuneko 10etik ehuneko 5era murriztuko da elikadurako olioiei eta pastei aplikatzen zaiena, oinarrizko elikagai horien azken prezioa murrizten laguntzeko. Bi murrizketak aldi baterako eta ezohiko neurri gisa ezarri dira, 2023ko urtarrilaren 1etik 2023ko ekainaren 30era arte, azpiko inflazioaren urte arteko tasaren bilakaeraren mende.

Eragiketa horiei dagokien baliokidetasun-errekarguaren tasa ere murriztu da, indarrean dagoen bitartean eta aplikatzen den bitartean. Neurri horiek Bizkaiko Lurralde Historikoan egokitzeko, honako hau onetsi zen:

1/2023 Foru Dekretu Arauemaile, 2023ko otsailaren 28koa, balio erantsiaren gaineko zergan, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergan, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan eta ekonomia-jardueren gaineko zergako tarifetan tributu-neurriak aplikatzeari buruzkoa.

Ekainaren 28ko 5/2023 Errege Lege Dekretuaren bidez, zenbait neurri hartu eta beste batzuk luzatu ziren, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko, La Palma uhartea berreraikitzen laguntzeko eta beste kalteberatasun-egoera batzuei laguntzeko, bai eta Europar Batasunak merkataritza-sozietateen egiturazko aldaketei eta gurasoen eta zaintzaileen familia-bizitza eta bizitza profesionala uztartzeari buruz emandako zuzentarauen transposizioa egiteko eta, orobat, Europar Batasuneko zuzenbidea betearazteko eta betetzeko ere. Bada, errege lege-dekretu horren bitartez, 2023ko bigarren sei hilekorako luzatu du balio erantsiaren gaineko zergan %0ko zerga-tasaren aplikazioa, zeina oinarrizko elikagaiei aplikatzen baitzaie, bai eta %5ekoa ere, zeina oliba- nahiz hazi-olioei eta elikadura-pastei aplikatzen baitzaie, elikagai horien azken prezioa murrizten laguntzeko. Nolanahi ere, tasa horien aplikazioa azpiko inflazioaren urte arteko tasaren bilakaeraren arabera izango da.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 26. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, foru-dekretu arauemaile honen bitartez, aipatutako aldaketak txertatu behar dira Bizkaiko Lurralde Historikoko araudian.



GAO — 198 zk. — 2023/10/13 — (H) — 

415/2023 FORU AGINDUA, URRIAREN 4KOA, BI FORU AGINDU HAUEK ALDATZEN DITUENA: 521/2020 FORU AGINDUA, ABENDUAREN 23KOA, ETA 357/2023 FORU AGINDUA, ABUZTUAREN 6KOA, ZEINAREN BIDEZ ALDATZEN BAITA 521/2020 FORU AGINDUA, ABENDUAREN 23KOA, TICKETBAI SOFTWAREAREN ZEHAZTAPEN TEKNIKO ETA FUNTZIONALAK ETA TICKETBAI SOFTWAREAREN ERREGISTROAN ALTA EMATEKO AITORPENA ARAUTZEN DITUENA.

Abenduaren 23ko 521/2020 Foru Aginduak, TicketBAI softwarearen zehaztapan tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitortpena arautzen dituenak, TicketBAI softwarearen ezaugarriak eta zehaztapan tekniko eta funtzionalak erregulatzen ditu lehen sekzioan. Aginduak bost eranskinetan jasotzen du horien edukia.

TicketBAI alta fitxategiari dagokionez, zeinaren egitura, edukia eta ezaugarriak aipatutako foru aginduaren I. eranskinean zehazten baitira, esan beharra dago fitxategi hori etengabeko eguneratze prozesuan dagoela eta azken eguneratzea egiteko berriki onetsi zen foru agindu hau eman zela: 357/2023 Foru Agindua, abuztuaren 6koa, zeinaren bidez aldatzen baita 521/2020 Foru Agindua, abenduaren 23koa, TicketBAI softwarearen zehaztapan tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitortpena arautzen dituenak.

Zehazki, abuztuaren 6ko 357/2023 Foru Aginduak aldaketak sartu ditu, besteak beste, bai I. eranskineko «BEZaren xehetasuna» eremuan onartzen den gehieneko multzo kopuruan (6tik 12ra zabaltzen dira datu multzoak) bai «Lotugabearen Xehetasuna» eremuan (2tik 4ra handitzen dira datu multzoak). Bi aldaketak Zerbitzu Prestazioen «Eragiketa motaren banakapena» eremura murrizten dira (Kontrapartea ez-nazionala denean).

Hala ere, azken foru agindu hori onartu denetik igarotako denbora laburrean, beharrezko ikusi da aipatutako I. eranskinean gehienek baimentzen den datu kopuruan sartutako aldaketak entregari dagokionez ere zabaltzea «BanakapenMota» eremura, bai datu hori «Eragiketa motaren banakapena» denean (kontrapartea ez-nazionala denean), bai «Fakturaren Banakapena» denean (kontrapartea «nazional» bat denean edo kontraparterik ez dagoenean).

Esandako aldaketa horiek zabaltzeaz gain, egokitatz jotzen da «Deskontua» datuko «Deskribapena» eremuaren edukia aldatzea zehazteko eurotan adierazi behar den zenbatekoan balio erantsiaren gaineko zerga kanpo geratzen dela.

Bestalde, beharrezkotzat jotzen da bai azken aldaketa horiek eta bai abuztuaren 6ko 357/2023 Foru Aginduan sartutakoak 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izatea aplikagarriak, eta, horretarako, aldatu beharra dago abuztuaren 6ko 357/2023 Foru Aginduaren azken xedapen bakarrean indarrean jartzeko aurreikusitako data.

Hortaz, beharrezkoa da, alde batetik, artikulua bat gehitzea abuztuaren 6ko 357/2023 Foru Aginduan jaso gabe dauden aldaketa gehigarriak lehen aipatutako I. eranskinean arautzeko. Bestetik, bigarren artikulua bat sartu behar da abuztuaren 6ko 357/2023 Foru Aginduaren azken xedapen bakarria aldatzeko; horrela, aipatutako foru aginduan 2023ko urriaren 15etik aurrera aplikatzeko aurreikusten ziren aldaketak 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko dira, foru agindu berri honek sartzen dituen aldaketa berriekin batera.

AKATS ZUZENKETA 203 zk. 2023/10/20



2023ko urriaren 13ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 198. zenbakian, argitaratu da 415/2023 Foru Agindua, urriaren 4koa, bi foru agindu hauek aldatzen dituenak: 521/2020 Foru Agindua, abenduaren 23koa, TicketBAI softwarearen zehaztapan tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitortpena arautzen dituenak, eta 357/2023 Foru Agindua, abuztuaren 6koa, zeinaren bidez aldatzen baita 521/2020 Foru Agindua, abenduaren 23koa, TicketBAI softwarearen zehaztapan tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitortpena arautzen dituenak. Testuan akats batzuk antzeman direnez, jarraian behar den eran zuzentzen dira:

Bat. 7. orrialdean, gaztelaniazko testuko «Datos/Agrupación» izeneko zazpigarren zutabea:

—Hau dioen lekuan:

«Detalle.IVA (1 a 6, una agrupación de datos por tipo).»

—Hau esan behar du:

«Detalle.IVA (1 a 12, una agrupación de datos por tipo).»

Bi. 8. orrialdean, gaztelaniazko testuko «Datos/Agrupación» izeneko laugarren zutabea:

—Hau dioen lekuan:

«Detalle.Nosujeta (1 a 2).»

—Hau esan behar du:

«Detalle.Nosujeta (1 a 4).»

Hiru. 10. orrialdean, gaztelaniazko testuko «Datos/Agrupación» izeneko bigarren zutabea:

—Hau dioen lekuan:

«DesgloseFactura (cuando la contraparte es un «nacional» o no existe contraparte).»

—Hau esan behar du:

«Desglosetipooperación (cuando la contraparte es un «no nacional»).»

Lau. 13. orrialdean, gaztelaniazko testuko «Datos/Agrupación» izeneko bigarren zutabea:

—Hau dioen lekuan:

«DesgloseFactura (cuando la contraparte es un «nacional» o no existe contraparte).»

—Hau esan behar du:

«Desglosetipooperación (cuando la contraparte es un «no nacional»).»

## GAO — 206 zk. — 2023/10/25 — (BEZ) —

### 429/2023 FORU AGINDUA, URRIAREN 19KOA, 2023-2024KO (BEZ) BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGARAKO ZERBITZUEN KARTA ONESTEN DUENA.

2004ko urtarrilaren 13ko 1/2004 Foru Dekretuak, Foru Administrazioari zerbitzuen kartak eta horien kalitatea ebaluatzeko sistemak erregulatu dituenak, zerbitzuen kartak prestatu, onartu eta ezartzeko prozedura garatzen du.

Zerbitzuen karten helburua da arlo bakoitzak kudeatutako zerbitzu publikoen kalitatea hobetzeko bere gain hartzen dituen konpromisoak zabaltzea, eskaintzen diren zerbitzuen ezaugarri eta baldintzak herritarrei ezagutaraztea, eta zerbitzu horien erabiltzaileek dituzten eskubide eta bermeak jakinaraztea.

Hartara, urriaren 21eko 560/2021 Foru Aginduaren bidez, 2021-2022ko (BEZ) Balio Erantsiaren gaineko Zergarako zerbitzuen karta onartu zen. Azken zerbitzuen kartan hartutako konpromisoak zenbateraino bete diren azaltzen duen urteko txostena aztertu ondoren, eta erabiltzaileek zerbitzuen kalitateari buruz duten iritzia behin ezagututa, bidezkoa da orain kartaren edukia berrikustea jasota dauden konpromisoak eguneratuz, betiere zerbitzuen kudeaketa etengabe hobetzearen.

AKATS ZUZENKETA 207 zk. 2023/10/26



2023ko urriaren 25eko 206. zk. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako 2023-2024ko (BEZ) Balio Erantsiaren gaineko Zergarako zerbitzuen karta (urriaren 19ko 429/2023 Foru Aginduaren eranskin gisa doana) ez denez irakurgarria, berriro argitaratzen da.

## GAO — 207 zk. — 2023/10/26 — (PFEZ) —

### 479/2023 FORU AGINDUA, URRIAREN 23KOA, ZEINAREN BIDEZ ALDATZEN BAITA 530/2022 FORU AGINDUA, AZAROAREN 16KOA, 345 EREDUA ONESTEN DUENA.

Azaroaren 16ko 530/2022 Foru Aginduak, zeinaren bidez onesten baita borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateen, pentsio plan eta funtsen, sistema alternatiboen, gizarte aurreikuspeneko mutualitateen, aurreikuspen plan aseguratuen, aurrezpen sistematikoko banakako planen, enpresen gizarte aurreikuspeneko planen eta mendekotasun aseguruaren urteko aitortuaren aurkezteko erabiliko den 345 eredu onetsi eta hura aurkezteko moduak eta epea ezartzen dituenak, gizarte aurreikuspeneko sistemari buruzko informazio hornidura arautzen du Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren hamargarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuko a) eta b) letratan eta abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduaren 66. eta 67. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik.

2022ko ekitaldian zehar, enpleguko pentsio planak bultzatzea helburu duen ekainaren 30eko 12/2022 Legeak, zeinaren bidez aldatzen baita Pentsio Planak eta Funtsak arautzen dituen Legearen Testu Bategina, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia, eta abenduaren 23ko 31/2022 Legeak, 2023. urterako Estatu Aurrekontu Orokorreko buruzkoak, aldaketak sartu zituzten gizarte aurreikuspeneko tresna horien araudi espezifikoa.

Aldaketa horien artean, nabarmentzekoak dira, besteak beste, ekarpen eta kontribuzio enpresarialen urteko muga finantzarioen aldaketa, profesionala espresuki parekatzea enpresaburu indibidualarekin ondorio horietarako, eta enpresek nahitaez jakinaraztea entitate kudeatzaileei langileak ekitaldian lortzen dituen lan etekin osoak ez direla 60.000 eurotik gorakoak.


Araudiaren erreforma horiek beharrezko egiten dute 2023ko ekitaldirako erabiliko 345 eredu aldatzeko, haren egungo erregistroen diseinuen idazketa egokitu eta zehazteko.

Zehazki, foru agindu honen artikulua bakarraren bidez aldaketak sartzen dira 345 eredu onesten duen azaroaren 16ko 530/2022 Foru Aginduan, ereduaren diseinuen 2. motako erregistroko (aitortuen erregistroko) «Gakoa» eta «Azpigakoa» eremuen idazketa eguneratzeko.

Jarraian, hiru eremu berri sartzen dira, «Gehienez 60.000 euroko lan etekin osoak», «Gizarte aurreikuspeneko sistemaren sustatzaile edo hartzaile den enplegatzailearen identifikazio datuak» eta «Ekarpenek muga finantzarioak gainditzeagatik egindako itzulketak», denak ere ereduaren diseinuetako 2. motako erregistroan (aitortuen erregistroan) sartuak.

Aurreko gutzia kontuan hartuta, foru agindu honen bidez 345 eredu aldatzeko da.

**EHAA**



**EUSKAL HERRIKO  
AGINTARITZAREN ALDIZKARIA**

**EZ DAGO ZERGA-ARAURIK ARGITARATUTA**





NAFARROAKO  
**Aldizkari Ofiziala**

EZ DAGO ZERGA-ARAUARIK ARGITARATUTA





## ESTATUKO ALDIZKARI OFIZIALA

EAO — 243 zk. — 2023/10/11 — (EAEA) — 

**IRAGARKIA, 2023KO IRAILAREN 4KOA, EUSKADIKO AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOKO IDAZKARIARENA, EUSKADIKO AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOKO HARTUTAKO ERABAKIAK ETA HAREN ESKUMENENKO GAINERAKO EGINTZAK JAKINARAZTEKO DENA.**

Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 112.1 eta 234.4 artikuluetan eta Tributuari buruzko Lege Orokorra garatzeko Erregelamendu Orokorra onartzen duen maiatzaren 13ko 520/2005 Errege Dekretuaren 50.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, zerrendatutako jakinarazpenak Euskadiko Ekonomia Ardurularitzako Auzitegiaren Idazkaritzan gordailatuko dira (Gaztelako Atea 15, 1. solairua, Vitoria-Gasteiz), 15 egun naturaleko epean, iragarki hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Epe horretan, interesdunak, zuzenean edo urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. artikuluan eskatzen diren baldintzak betetzen dituen ordezkari baten bidez, egintzaren kopia jaso ahal izango du Euskadiko Ekonomia Ardurularitzako Auzitegiaren Idazkaritzan, hartu-agiria sinatu ondoren. Epe hori agortzen ez bada, jakinarazpena egintzat joko da legezko ondorio guztietarako, adierazitako epea amaitu eta hurrengo egunean.

EAO — 260 zk. — 2023/10/13 — (OZ, ODZ, PFEZ, SZ) — 

**HFP/1180/2023 AGINDUA, URRIAREN 26KOA, HONAKO HAUEK ALDATZEN DITUENA: EHA/3481/2008 AGINDUA, ABENDUAREN 1EKOA, 189 EREDUA, EREDU HORREN BARRUKO ORRIAK ORDENAGAILUZ ZUZENEAN IRAKURTZEKO MODUKO EUSKARRIEKIN ORDEZKATZEKO DISEINU FISIKO ETA LOGIKOAK, BALOREEI, ASEGURUEI ETA ERRENTEI BURUZKO URTEKO INFORMAZIO-AITORPENARI BURUZKOA, ETA TELEMATIKOKI AURKEZTEKO BALDINTZAK ETA PROZEDURA EZARTZEN DITUENA; ETA HAP/72/2013 AGINDUA, URTARRILAREN 30EKOA, 720 EREDUA ONARTZEN DUENA, ATZERRIAN KOKATUTAKO ONDASUN ETA ESKUBIDEEI BURUZKO INFORMAZIO-AITORPENARI BURUZKOA, ZERGEI BURUZKO ABENDUAREN 17KO 58/2003 LEGE OROKORRAREN HEMEZORTZIGARRREN XEDAPEN GEHIGARRIAN AIPATZEN DENA, ETA HURA AURKEZTEKO LEKUA, MODUA, EPEA ETA PROZEDURA ZEHAZTEN DITUENA.**

Uztailaren 9ko 11/2021 Legeak (zerga-iruzurra prebenitzeko eta haren aurka borrokatzeko neurriei buruzkoa eta Kontseiluaren 2016ko uztailaren 12ko 2016/1164 (EB) Zuzentarauaren transposizioa egiten duena) aldatu egiten du Ondarearen gaineko Zergari buruzko ekainaren 6ko 19/1991 Legea. Zuzentaru horrek barne-merkatuaren funtzionamenduan zuzenean eragiten duten zerga-elusioaren jardunbideen aurkako arauak ezartzen ditu, hainbat zerga-arau aldatzen ditu eta jokoak arautzen du. Horrez gain, aseguruaren hartzaileak erreskate-eskubidea egikaritzeko ahalmenik ez duenean, bizi-asegurua nola baloratu behar diren adierazten du, eta, horrela, ez da posible izango zalantzarik gabeko ondare-edia duten bizitza-aurrezki aseguruaren tributazioa saihestea. Halaber, balioespen-arau berri bat ezartzen da bizi-aseguru batetik aldi baterako edo biziarteko errentak jasotzen diren kasuetarako.

249/2023 Errege Dekretua, apirilaren 4koa, Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorra administrazio-bideko berrikuspenaren arloan garatzeko erregelamendu orokorra – maiatzaren 13ko 520/2005 Errege Dekretuak onartua – aldatzen duena; Diru-bilketari buruzko Erregelamendu Orokorra – uztailaren 29ko 939/2005 Errege Dekretuak onartua –; zergak kudeatu eta ikuskatzeko jarduera eta prozedurei buruzko eta tributuak aplikatzeko prozeduren arau komunak garatzeko Erregelamendu Orokorra – uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretuak onartua –; Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren Erregelamendua – azaroaren 8ko 1629/1991 Errege Dekretuak onartua –; Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua – Errege Dekretuak onartua –.

Zehazki, apirilaren 4ko 249/2023 Errege Dekretu honek aldatu egiten du tributuen kudeaketa eta ikuskapenerako jarduera eta prozedurei buruzko eta uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako tributuak aplikatzeko prozeduren arau komunak garatzeari buruzko Erregelamendu Orokorra, eta, besteak beste, erregelamendu horren 39.3 artikulua eta 42 ter artikulua.

Arau-erreforma horren ondorioz, 189 eredia («Baloreei, aseguruari eta errentei buruzko urteko informazio-aitorpena») eta 720 eredia («Atzerrian kokatutako ondasun eta eskubideei buruzko informazio-aitorpena») arautzen dituzten ministerio-aginduak aldatu behar dira, eredu horietan eskatzen den informazioa onartutako araudi berrira egokitzeko.

Lehenik eta behin, 189 ereduari dagokionez, beharrezkoa da eredia arautzen duen aginduaren 3. artikulua egokitzea uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretuak onartutako tributuen kudeaketa eta ikuskapenerako eta tributuak aplikatzeko prozeduren arau erkideak garatzeko jardunen eta prozeduren Erregelamendu Orokorraren 39. artikuluan 3. paragrafoaren idazkera berrira.

Aldaketa horrek, Ondarearen gaineko Zergari buruzko ekainaren 6ko 19/1991 Legearen 17. artikuluan idazketa berriarekin bat etorriz, bizitza-aseguruaren kasuan, hornidura matematikoaren balioa abenduaren 31n jakinarazteko betebeharra barne hartzen du, aseguru-hartzaileak ez duenean egun horretan erreskate osorako eskubidea baliatzeko ahalmenik (aldi baterako aseguruaren kontratuak izan ezik, horiek heriotza edo baliaezintasuneko kasuetarako prestazioak edo beste arrisku-berme osagarri batzuk soilik jasotzen dituztenean), bai eta bizi-aseguru baten ondoriozko aldi baterako errenten edo biziarteko errenten kasuan ere (aseguru-hartzailea errentaren hartzailea ez den beste pertsona bat denean eta erreskate-eskubidea marrantzen duenean izan ezik).

189 ereduko 2. motako erregistro-diseinuan aldatetari dagokionez (deklaratuaren erregistroa), lehenik eta behin, «Balio-gakoa» eremua aldatzen da, erreskate-baliorik gabeko bizi-aseguruari buruzko informazioa emateko F gako berri bat sartzeko (baita erreskate-baliorik gabeko bizitza- edo baliaezintasun-aseguruetatik eratorritako aldi baterako errentei edo biziarteko errentei buruzkoa ere). Horiei buruzko informazioa eman behar zaie hartzaileari eta abenduaren 31ko hornidura matematikoaren balioari buruz, Ondarearen gaineko Zergari buruzko ekainaren 6ko 19/1991 Legearen 17. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Aldi berean, «Balorazioa» eremua aldatu da, zehazteko, F gako berria idatzi bada, hornidura matematikoaren balioa adierazi behar dela abenduaren 31n.

720 ereduari dagokionez, lehenik eta behin, eredia arautzen duen aginduaren 2. artikulua egokitu behar da, uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretuak onartutako zerga-kudeaketa eta -ikuskaritzako jarduketa eta prozedurei eta tributuak aplikatzeko prozeduren arau komunak garatzeari buruzko Erregelamendu Orokorren 42 ter artikulua 3. paragrafoaren idazkera berrira, ereduaren eremu subjektiboan 42 ter artikulua horren 3. paragrafoaren b) letran aurreikusitako kasu berria sartzeko; horren arabera, aseguru-hartzailea errentaren onuraduna ez den beste pertsona bat bada eta erreskate-eskubidea mantentzen badu, hartzaile horrek aurkeztu beharko du 720 eredia.

Era berean, 2. motako erregistro-diseinuak (xehetasun-erregistroa) aldatu dira, ereduaren informazio fiskala RGATren 42 ter artikulua idazketa berrira egokitzeke. Horretarako, «1. balioespena: saldoa edo balioa abenduaren 31n; saldoa edo balioa azkentze-datan; eskurapen-balioa» eremua aldatzen da, zehazteko «Ondasun edo eskubide motaren gakoa» eremuak «S» balioa hartzen duela bizi-aseguru batetik datozen bizitza- edo baliaezintasun-aseguruei eta aldi baterako edo biziarteko errentei dagokienez, zeinen erakunde aseguratzailerak atzerrian baitaude, hornidura matematikoaren balioaren berri emango da abenduaren 31n, aseguruaren hartzaileak ez duenean egun horretan erabateko erreskate-eskubidea baliatzeko ahalmenik (aldi baterako aseguruen kontratuak izan ezik, horiek heriotza- edo baliaezintasun-kasuetarako prestazioak edo beste arrisku-berme osagarri batzuk baino ez baitituzte jasotzen).